



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2020/21 Denboraldia

## 2. ZK.DUN ZIRKULARRA

### KORONABIRUS PROTOKOLOA

Euskal Autonomia Erkidegoko osasun agintariek ezarritakoaren arabera, COVID-19aren prebentzioaren inguruan indarrean dagoen araudia oinarri hartuta, eta zehazki kirol-federazioei, klubei, parte hartzaileei, ikusleei eta kirol-instalazioen titularrei dagokien guztia aintzat hartuta, Euskadiko Futbol Federazioaren protokoloa argitaratu da, Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoko Zuzendaritzak egindako txostena argitaratu ondoren Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak onartua.

<http://www.eff-fvf.eus/pub/noticiaAmpliada.asp?idioma=ca&IdNoticia=8349>


Euskadiko Futbol Federazioaren, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko hiru lurraldeetako federazioen eta tokian tokiko Arbitro batzordeen bidez, federazio horretakoak diren klubei eta epaileei zirkular hau eta erantsitako protokoloa bidaliko zaizkie, eta, gainera, [www.eff-fvf.eus](http://www.eff-fvf.eus) webgunean eta Federazioaren sare sozialetan argitaratuko da.

Kluben ardura izango da futbolarietara, teknikarietara, laguntzaileetara eta partidetan edo entrenamenduetan parte hartzen duten klubetako pertsona guztietara protokoloa helaraztea, eta partidak jendaurrean egiten badituzte, ikusleei ere bai.

Kluben, futbolarien, arbitroen, entrenatzaileen eta futboleko gainerako estamentuen artean sor daitezkeen zalantzak direla eta, ondorengo helbide elektronikoko hau finkatu da guztiak argitzeko.

- [webmaster@eff-fvf.eus](mailto:webmaster@eff-fvf.eus)

Zalantzak edo kontsultak idatziz eta horretarako prestatutako posta elektronikoko helbideen bidez egin beharko dira beti, eta ez dira inoiz ere telefonoz erantzungo. Hori horrela egingo da galdera berdinei erantzun berbera, era berean eta irizpide beraren arabera eman ahal izateko.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

Protokolo hau aldatu egingo da Erkidegoko osasun eta kirol-agintariak hala erabakitzen duten neurrian. Federazio honen webgunean garaiz argitaratuko diren bertsioetan eguneratuko da, eta klubei nahiz arbitroei orain bezalaxe jakinaraziko zaie.

Honako hau jakinarazi da guztiok ezagutu dezagun eta egokiak diren eraginak izan ditzan.

Bilbon, 2020eko irailak 4ean

KEPA ALLICA BILBAO  
Secretario General